

## 2020ko Inauteriak

# “NATURAREN SUPER-HEROIAK”



### Familia agurgarriak:

Datorren martitzenean, otsailak 25a, eskolako Karnabal edo Inauteri eguna ospatuko dugula jakinarazi nahi dizuegu. Aurten aukeratu dugun gaia **NATURAREN SUPER-HEROIAK** izan da.

Ohiturari jarraituz eta eguraldiak laguntzen badu, 14:30ak inguruan, herriko plazara kalejiran joango gara (bestela jaialdia kiroldegian egingo dugu). Kiroldegian eginez gero, ikusleak non jar daitezkeen adierazita egongo da. Bertan, mozorroen aurkezpena eta dantza batzuk egingo ditugu.

Arratsaldea goxo-goxo bukatzeko, eskolara bueltatu eta 15:30ak aldera, jangelako sukaldariak prestaturiko **txokolate goxo bizkotxoekin** dastatzeko aukera izango dute IKASLE GUZTIEK eskolako aterpean. Ikasleak 4rak arte irakasleekin egongo dira.

**Bi urteko ikasleak**, goizez mozorrotuko dira eta eskolan ikasgela desberdinetara bisita egingo dute.

**Gonbidatuta zaudete** gurekin parte hartzera arratsaldeko ekintza honetan.

Agur bero bat, KLAUSTROA.

**DISFRUTATU IKUSKIZUNAZ!**